

Zorion t'osahun utsa bere barrunian.
Antxen bizi nai nuke goxotasunian.

Zu gandik ariñ-ariñ aundi ametsian
iges egiñ dizuna itxutasunian,
asper-asper egiñda txoro iritzian,
io bedi berriro goruntz indarrian
biotz damu egizko maitetasunian!

*Biotz garbikua zalako noski gazte au, denbora asko
baiño lenago, ikusi zitun ongi aski zenbat egiazko
ontasun utzi zitun baztertuta aitaren etxian, eta ara
berri biurtu zan.*

*Uraxe izan zan bere gurasoentzat egunik atsegiñe-
netakua.*

JOAKIN ALDABE

GUDA OLERKARIA

(Sidney Keyes, ingelandar olerkaria
duzu, irakurle. Gudak kezkatu egin
zan olerkari. 1943'garren urtean, 21 urte
bakarrik zituala, gudan bertan arkitu
zuan eriotzaren gau beltza.

Bere olerkietan, oartuko zeran lez, pa-
kearen billa zebillena zan eta, egun ba-
tean, bere eskuan azkon bat ikusi zue-
na. Baiñan, zergaitik, Keyes'ek, susmatu
zitian eriotzaren atzaparrak bere gai-
ñean? zergaitik egiten zuen ildakoekin
ames? Arritzekoa da...

Illobi estu batean kukurturikoekin
pentsatzen zuen ura, orain beren artean
dago. Bizitzaren udaberrian alkartu zan
begiak lurrez beterik dituenekin. Gaz-
te-gazterik illerriratu zan, lili-osto ta auts
usaia duan gaura sartu ziranekin lillu-
raturik egoana. Ilkorra izan zan nunbait
berak arkitu zuen galtzairuzko azkon
ura.

Garrantzizkoak dira, bere etorkizuna azkar susmatu zuen gazte onen olerkiak, batez ere gogoaren aldetik. Eta euskera-raturik OLERTI'ren irakurle ta lanki-deeri ezagutzera eman nai nituzke.

OTSALAR euskeratzaileak.)

Pakearen billa zebillena naiz ta bere begietan galtzairuzko ortzak arkitu dituana.

Itzak ikumenez arkitzen zituana

eta egun batean, bere eskuan, azkon bat ikusi

Bere orma tinkoen ondoan luperia [zuana.

ikusten duan egillea natzaizute.

Egunen batean ikusten ba'nauzute gexo edo

ez hurlarik egin nigan, ezta katerik jarri

aizeari jarraitzen diotanean

ez nazazutela lurreratu,

naiz nere arpegiak liburu errea

ta uri sakaildua iduri.

ZAINZALLEAREN BI EGINBIDE

I

EGUERDIKOA

Larradi gurenean, belar orien tartean,
kirkerrak bere ego-azal auskorak zarratzen
dituan lekuan, beti lurraren atzaparrak estu-

duen itxasoa entzunaz gelditzen naiz.

Udarako eguerdi gozakaitz ontan

bere ago berritsua mutu duenengan eta

illobi estu batean kukurturikoekin pentsatzen

Negar dagiet begiak lurrez beterik dituenari.